

Zer egin genezake ikasle elebidunen burasoak gure euskarazko irakaskuntzan integratzeko?

2020/09/09 ko taldeen bilduma

- **Klasea ideki :**
 - Gelako bideoak (erritualak adibidez) edota gertakari batzu partekatuz
 - Hiztegi edo erranaldi ximpleak soinu edo bideoz partekatuz, eskolako pantailan, gunean edota Euskal Haziak en gunean
 - “Asteko erranaldia” izan daiteke, eskolako pantailan emana, sartzean, agerian (itzulpenarekin ttipiz)
 - Irakurketa/zenbakuntza ko adibide batzu eman bakantzetan euskaraz segitzeko (silabetan moztu, mahaina ezarri tresnak kondatuz)
 - Burasoak gelan sararazi tailer batzu eramaiteko gisan
 - Etxeko lanen aginduen itzulpena emanez
- **Hizkuntza sar arazi etxean** (padlet batean, edo mailez) :
 - grabaketak sortu : irudi, soinu, hitza (adib : ipuina etxean entzun, hiztegia, olerkiak, kantuak)
tresnak : book creator, i-movie, note, spark bideo
 - cloud (edo drive) bat sortu
 - jokoak prestatuz eta haurrei emanez etxean aritzeko burasoekin (lotoa zenbakien ikasteko, memory...)
- **Burasoekin lotura azkartu :**
 - Buraso kudeatzaile bat izendatu, gelako besteri informazioak pasaraziko dituenak (whatsappez adibidez) : eskaintza kulturala adibidez...
 - Burasoen ikustera joan haien lanera, euskaraz lan egiten badute

Horrendako, zeren beharra genuke?

- Denbora!
- Linguae bezalako **plataforma bat**, gauzak partekatzeko, baina sinpleagoa. Edo padlet ximple batekin has gaitzke ere... Bereziki bideo guziak atxeman daitezken gune bat
- **Burasoekin** bilkura bat antolatu, hoi **beharretatik** abiatzeko

- **Materiala** menperatu; segurtatu etxean materiala badutela.
- Ofizialki **DDECK antola dezan** irakasle bakoitzarentzat 2 egun erdiren parada beste lankide baten gelara joateko, bere pratika, eskolaren ibilmoldea, esperientzi berri batzuen bizitzeko...
- Tresna numeriko berrien baliatzen ikasteko **formakuntza** eta pertsona laguntzaileak
- **Topaketa** momentu bat, Kreatice-n gisara, tresna numerikoentzat